



Festa giroan ospatu dute beren eguna baserritarrek

TOLOSALDEA ▶ Herri kirolek, mezek, prozesioek, bazkariak eta afariak osatu zuten, atzo, San Isidro eguneko egitaraua eskualdeko txokoetan ▶ 4-5



Asteasuko plazako probalekuan zaldiak izugarritzko ahalegina egin zuten eta 94 plazak betetzea lortu, idiaren aurkako lehia irabaziz. I. GARCIA

LEITZALDEA ▶

Eskolarteko Bertso-paper Lehiaketako sariak banatu dituzte

Bat-bateko Bertso Lehiaketako sailkapen saioa ere egin zuten atzo ▶ 7



Nafarroako Bertso-paper Lehiaketako eskualdeko sarituak. J. ASTIBIA

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

Urrezko Aizkolarien finalerdian da Arrospide

Rekondok galdu egin du eta azken saioaren zain dago orain ▶ 7

TOLOSALDEA ▶



HITZA

400 mendizale asteburuko ibilaldietan

Balantze ona egin dute Berastegiko eta Erniopeko martxetako antolatzaileek ▶ 6

TOLOSA ▶

Fin ari da Hegoalde bigarren itzulian

Hamahirutik bederatzi partida irabazi ditu ▶ 3



KULTURA ▶

Ekhiñe Olano gazteak tronpa kontzertua eskainiko du, gaur

Tatiana Kriukova piano-jolearekin batera, Musika Eskolako areto nagusian ariko da tolosarra, 19:00etatik aurrera



Ekhiñe Olano tronpa-joleak etxean joko du, gaur, 19:00etan. HITZA

NOELIA LATABURU

Ekhiñe Olano gazte tolosarrak tronpa kontzertua eskainiko du, gaur, Musika Eskolako areto nagusian, 19:00etatik aurrera. Harerekin batera, piano-jole ospetsu bat ere ariko da, Tatiana Kriukova errusiarra, hain zuzen ere. Egitarau berezia prestatu dute hitzordu berezi honetarako; batetik, Haydn-en lehen kontzertua, Strauss-en lehen kontzertua ondoren; Defay-ren *Alpha* pieza; eta, azkenik, Bozza-ren *En Foret* lana joko dute.

Gaztea izanagatik, ibilbide luzea du Olanok musika munduan. Musika ikasketak 6 urterekin hasi zituen, Tolosako Musika Eskolan, alegia. Urtebete beranduago tronpa ikasten hasi zen Musika Eskolan bertan, Lizaso eta Tardiorekin, lau urtez. Ondoren, Donostiako kontserbatorio ertainera jo zuen, Jon Lizasorekin jarraituz. 2002an Musikenen sartu zen eta Perez Ortega, Epelde eta

KONTZERTUA ▶

Gaia. Ekhiñe Olanoren tronpa kontzertua, Tatiana Kriukova piano-jolearen pianoaz lagunduta.

Eguna. Gaur.

Ordua. 19:00etan.

Herria. Tolosa.

Tokia. Musika Eskola areto nagusian.

Egitaraua. Haydn-en lehen kontzertua, Strauss-en lehen kontzertua, Defay-en *Alpha* eta Bozza-ren *En Foret*.

Salarekin ari da egun Goi mailako azken kurtsoa bukatzen. Ikasketa ofizialez gain, hainbat ikastaro egin ditu tronpako irakasle ospetsuenekin.

Orkestratan ere hartu du parte: Joven Orquesta de Castilla La Manchako titularra 2000. urtean eta Euskal Herriko Gazte Orkestrakoa (EGO) 2001etik 2005era. 2005etik Joven Orquesta de Catalunya (JONC) partaide titularra da. 2006an

Jeunes Musicales World Orchestra (JMWO) tronpa talderako hautatua izan da Espainiako hautagaien artean. Musikeneko Orkestrako partaide ere bada.

Bi musikari trebe

Hainbat zuzendari ospetsuekin ere lan egin du Olanok. Ganbarako musika arloan, talde anitzetako partaide establa izan da: Quinteto Miramar, Haizearen Orrazia, zeinekin kontzertu asko eman dituen (Donostia, Bilbao, Gasteiz, Tolosa...), 2005. urtean 3. saria jaso zuen Miguel Angel Colmenero izeneko nazioarteko tronpa lehiaketan goi mailan, eta 2006an finalista Ciudad de Xativa deritzon gazte jotzaileen lehiaketako 21 urte arteko mailan, haize metal atalean. Kolaborazioak ere egin ditu: Iruñeko La Pamplonesa bandan, Bilbao Philharmonia orkestan eta Bilboko Udal Bandan. Donostiako akordeoi orkestan ere bakarlarri gisa aritu da.

Bestalde, Kriokuvak ere musikari trebea da oso. 1950ean jaio zen eta 7 urte zituenetik aritu da musika munduan murgilduta. Iruñeko Pablo de Sarasate Kontserbatorioan irakasle lanetan aritu da, kontzertuak ematen jarraitzen zuen bitartean. Esate baterako, Bilbon, Palentzian (Espainia), Madrilen eta Valentzian (Herrialde Katalanak) aritu da, eta irratia eta telebistan. 1996tik geroztik Maria Bayo sopranoarekin batera jotzen du pianoa, eta Musikene Kontserbatorioan irakasle da.

HEZKUNTZA ▶

Adimen Emozionala hizpide, bihar Hirukiden

'Gure seme-alabak heitzeko modu berri eta interesgarria' zuzenduko du Gonzalezek

N. LATABURU

Bihar, 18:30ean, Hirukide Jesuitinetako aretoan gurasoei zuzendutako hitzaldi «oso interesgarria» antolatu dute, *Gure seme-alabak heitzeko modu berri eta interesgarria* izenpean. Hizlaria Jose Antonio Gonzalez Gipuzkoako Foru Aldundiko Adimen Emozional proiektuaren kordinatzailea izango da.

Hitzaldia garrantzitsutzat jo dute ikastetxeko arduradunek; izan ere, Hirukide eskolan Adimen Emozionalari izugarrizko garrantzia ematen ari dira, «hasi ginen biderei jarraipena emanez». Iaz Hirukide Jesuitinetako irakasle talde batek Adimen Emozionala kurtso osoa jaso zuen, eta aurten irakasle guztiak jaso du ikastaro horren lehenengo zatia, bigarrena kurtso bukaeran burutuko dutelarik. Bestalde, lan talde hori tutoretzatant ikasleekin lantzeko ma-



Jose Antonio Gonzalez ariko da hizlari lanetan, bihar. HITZA

terial bilduma osatzen ari da, «ikasleen emozioen hezkuntza baita prozesu luze honen helburu».

Gaiaren garrantzia aintzat hartuta, guraso zein interesatuz guztiari gonbidatu nahi die HIRUKIDETIK hitzaldian parte hartzera.

HEZKUNTZA ▶

DBHko gurasoei zuzendutako hitzaldia Orixen

Orixen institutuko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 1., 2. eta 3. mailako ikasleen gurasoei zuzendutako hitzaldi zikloa gaur amaituko dute, azken saioarekin. 18:30ean izango da, Orixen institutuan bertan; Hilario Garrudo psikologoak gidatuko du, hain zuzen ere, gaurko hitzaldia, eta *Aruak eta mugak jartzearen garrantzia* izango du hizpide adituak.

GAZTERIA ▶

Hitzaldi berri bat Etxebideri buruz, Ortegaren eskutik

Gazteria sailak antolaturiko emantzipazioaren inguruko hitzaldi zikloen 3. hitzaldia txanda izango da etzi. Etxebideren inguruan azalpenak jasotzeko eta eztabaidatzeko aukera izango dute bertaratuek, Ricardo Ortegaren eskutik; Etxebizitza eta gizarte gaietarako probintziako ordezkaria da Ortega. Hitzaldia 20:00etan garatuko da, Kultur Etxeko areto nagusian.

Astizko kobak S.M. enpresak, Mendukikilo leze turistikoan lan egiteko lan poltsa osatu eta udararako (ekaina-uztaila-abuztua) langile bat kontratatuko deaialdia luzatzen du.

Egitekoak: kobako bisita gidatuak, tikit salmenta eta taberna hartatzea.

Eskeintza: trebakuntza eta 3 hilabeterako jornada osoko kontratua. Jarraitzeko aukera.

Baloratuko da: euskalduna, zonaldekoa, antzerako lanetan eskarmentua eta ingurumen heziketaren ezagutza.

Ezinbestekoa: B1 gidatzailea eta autoa (kobara bertaratzeko)

Epea: C.V.-ak maiatzak 22 (astelehena) arte jasoko dira.

Nora bidali: Plazaolako Partzuergo Turistikoko egoitzan (Turismo bulegoan).

Plazaola 21, 31870 Lekunberri
mendukilo@mendukilo.com

Komunikabide batek
pertsona bat behar du

asteburuetan
argazkiak ateratzeko.

Interesatuak deitu
661 678 817ra

astelehen, astearte edo asteazkenean,
12:00etik 14:00etara.

▶ TOLOSALDEKO
HITZA.INFO

Eztabaida. «Zer iruditzen zaizu Voith-Gorostidi etxebizitza tasatuetako zozketan parte hartu ahal izateko jarritako baldintzak?». Sar zaitez gure webgunean eta eman ezazu gai honi buruzko eta bertan proposatzen ditugun beste askori buruzko zure iritzia.

ARETO FUTBOLA ▶

Bigarren itzulian, erreakzio ikusgarria izan du Hegoalde

Azken biran jokaturako hamahiru partidetatik bederatzi irabazi dituzte Tolosaldekoek, eta lau bakarrik galdu



Hegoalde taldeko jokalariek, entrenamendu saio batean. HITZA

ESTI EZEIZA

Liga amaitzeko bi jardunaldi falta direla, sailkapeneko zazpigarren postuan da Hegoalde. Igandean, 6 eta 2 galdu zuten Usabalgo kiroldegian UCAM Murciaen aurka. Honela, hurrengo bi jardunaldiak irabaziz gero, bosgarren amaituko luke denboraldia.

Erreakzio ikusgarria

Denboraldia zorte txarrekin hasi bazuten ere, bigarren itzulian jokaturako hamahiru partidetatik bederatzi irabazi dituzte, eta lau galdu. Hala, biga-

SAILKAPENA ▶

1. Tecnocasa Mostoles
2. C.D. Futsi Navalcarnero
3. UCAM Murcia
4. Femesala Elche
5. Kettal Fuenlabrada
6. Mainfer Zaragoza
7. **Hegoalde K.E.**
8. Preconte Telde Canaria
9. Cajasur Cordoba
10. ADAE Valladolid
11. Finques Cadi Gironella
12. F.S.F. Rioja Diamante
13. V.P. Soto del Real
14. C.D. Ourense SAD
15. Majadahonda Afar 4
16. Valencia FFS

rren itzuliko emaitzak soilik kontuan hartuz gero, sailkapeneko laugarren postuan egongo lirarteke orain Hegoaldeko jokalariek. Izan ere, lehenengo itzulian hamabost jardunalditatik bost besterik ez zituzten irabazi. Ondorioz, itzulia 13. postuan amaitu zuten, jaitzieratik bi puntura.

Datorren neurketa, 29. a, azkenaurkekoa izango da, eta hilaren 29an jokatu dute Usabal kiroldegian. Aurkari Mainfer Zaragoza izango dute, sailkapenean postu bat aurretik duen taldea. Beraz, irabaziz gero, seigarren jarriko da Hegoalde.

ARETO FUTBOLA ▶



Laskorain K.E. taldeko jokalariek. HITZA

Irabaziz agurtu du denboraldia Laskorainek

4-3ko emaitzarekin gailendu zitzaion larunbatean San Pedro taldeari

E. EZEIZA

Larunbat arratsaldean Usabalgo polikiroldegira joandako zaletuek, etxeko azken norgehiagokan, eta gehiegi sufritu ondoren, garaipenarekin agurtu zuten denboraldia.

Emaitzak islatzen duen moduan, ez zen partidu samurra izan Eski *Pasaban*-ek zuzentzen duen taldearentzat. Kanpotarrak lehen minutuetan bi kontraeraso azkarren bitartez, *Santxo* gaztearen atea zulatuz, 0-2 markagailuan ipiniz. «Aipatu Iker *Santxo*-ren estraineko partidua zela lehen taldearekin, urte guztian mantendu duen maila ona erakutsiz», diote Laskoraingoek.

Malda gogorrek hain gustuko dituen Egizabal entrenatzaileak, taldeak behar zuen bultzada eman nahian, aldaketak egin zituen, eta honela *Doc Love*-ek eskuinkada bikain bati esker, 1-2 lortu zuten. «Mutil honek, futbole-

an ez ezik, fisionomi munduan aditu bat dela erakutsi digu azkenaldian auzetu berri duen *Tete* teoria famatuarekin». 2. zatian gauzak gehiago okertu ziren kanpotarren 1-3koarekin. Urte honetan behin bota den grinari esker, horitxoak partiduari buelta ematen saiatu ziren eta 10 minutu falta zirela *Ekhin* gazteak 2-3koa markagailuan ipini zuen. Azken minutuetan taldeak ez zuten etsi, eta lehendabizi Barriola eta ondoren Joniko *Massa*-ren bitartez markagailuari buelta ematea lortu zuen.

«Nola ez, gorapaitu behar da urte guztian entrenatzaileak egin duen lan bikaina. Gipuzkoako mendikateetako haize fresko eta berritzaileak mesede handia egin diote talderen gidaripenean huts ez egiteko. Honela, azken asteetan, hurrengo urteetan taldearen sustrai izango diren gazteekin ari da lanean».

iragarki laburrak ▶

 San Frantzisko etorb. 47- beheko
 TOLOSA
 Tel.: 943 65 50 37
 Fax: 943 65 09 44
 www.enricinmobiliaria.com
 www.inmovera.com

Anoeta. Marban dagoen taberna-jateetxea alokairuan. Informazio pertsonala.
Alegia. Taberna alokairuan. Informazio pertsonala.
Alkiza. Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra salgai. 4 solairu. Bista oso onak.
Amezketeta. Etxe abikia salgai.
Amezketeta. 2 logela, egongela, sukualdea eta bainugela. Oso egoera onean. Nahiko eraikuntza

berria. Berokuntza, trasteleku eta igogailuarekin.
Belantza. Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra. 462.780 euro.
Hernialde. Etxe bifamiliari ederra salmantan. Eraikuntza nahiko berria.
Ibarra. Etxe adosatua salmantan. Oso egoera ona.
Ibarra. Garaje itxi eta irekiak salgai.
Ibarra. 2 logela, egongela, sukualdea, bainugela. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin. Bizitzera sartzeko moduan. 210.355 euro.
Ibarra. Euskalerrria kalea. Oso egoera onean. Hiru logela, egongela, sukualdea eta bainugela. Berokuntzarekin.
Ibarra. San Inazio auzoa. Hiru logela, egongela, sukualdea eta

bainugela. 228.385 euro.
Irura. 2 logela, egongela-sukualdea, bainugela. Terraza eta lorategia. Egoera oso ona. Trasteleku ganbararen. 22 m2ko garaje itxia aukeran.
Gabiria. Paraje ederrean, eraikuntza berriko etxe bifamiliarra.
Lregorreta. Eraikuntza nahiko berria. 2 logela eta 2 bainugela. Berokuntza eta trastelekuarekin.
Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai. 168.285 eurotik aurrera.
Tolosa. Belate. 3 logela, sukualde-egongela, bainugela. 264.450 euro.
Tolosa. Berazubi. 3 logela, egongela, sukualdea, bainugela. Guztiz kanpoaldera.
Tolosa. Zumalakarregi. 165m2-ko etxebizitza salgai. Trastelekuarekin.

Tolosa. Zumalakarregi. 2 etxebizitza. 92 eta 97 m2. 2 eta 3 logela, sukualde-egongela, 2 bainugela. Oso bista ederrak. Guztiz berriak. Estreinatzeko.
Tolosa. Araba etorbidea. 4 logela, egongela, sukualdea, 2 bainugela, 25 m2-ko trasteleku eta garajea.
Tolosa. Trinkete. 3 logela, sukualdea, egongela, bainugela. Trasteleku eta garaje itxia.
Tolosa. San Frantzisko ibilbidean 120 m2ko eraikuntza berriko etxebizitza salgai.
Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.
Tolosa. Araba etorbidea. Garajea alokairuan.
Tolosa. Pablo Gorosabel. 40 m2-ko bulegoa alokairuan.
Tolosa. Erdialdean eraikuntza berriko

etxebizitza. 3 eta 4 logelekin, terrazak. Sukualde ekipatuak. Garajeekin.
Tolosa. Usabal. 2.000 m2-ko pabiloi industrialia alokairuan.
Tolosa. Guadalupe. Pabiloia, 228 beheko aldean eta 148 m2 goialdean. Prezio interesgarria!!
Zizurkil. Eraikuntza berriko 365 m2-ko pabiloia. 9 metroko altuera. Kamioientzako sarrera, bulegoak, komunak, aparkalekuarekin...
Zizurkil. Etxe abikia salgai, oso egoera onean.
Villabona. 3 logela, sukualdea, egongela eta bainugela. Balkoi ederra. Dena kanpoaldera. Etxebizitza erabateko obra behar du. Eraikuntza guztiz berri dago eta igogailua dauka.

IBARRA ▶

San Bartolomeak antolatzenko bilera gaur, 20:00etan

San Bartolome jaiak antolatzen jarraitu asmoz, gaur, 20:00etan, udaltekoko batzar aretoan Festa Batzordearen bilkura egingo dute. Elkarte, talde, erakunde zein norbanakoei bertaratzeko gonbita egin diete.

PILOTA ▶

HITZA Pilota Txapelketako partidak, gaur

HITZA Pilota Txapelketaren baitan, gaur 19:30etik aurrera, Tolosako Beotibar pilotalekuan jubenilen mailako partidak jokatu dituzte. Azpiri-Landaburu Amezketa Ropon-Legarretaren aurka lehiatuko dira, eta ondoren, Alonso-Mendia eta Ezkurdia-Bergera ariko dira nor baino nor.

TXARAMA ▶

Herriko jaiak antolatzenko bilera egingo dute gaur

Txaramako elkartearen egingo dute gaur, 20:00etan, festak antolatzenko bilera. Asteartero, ordu berean izango da aurrerantzean.

IBARRA ▶

Pirritx eta Porrotx ostiralean kiroldegian

Galtzaundi Euskara Taldeak Pirritx eta Porrotx pailazoan antolatu du ostiralean, hilaren 19an, 17:30ean, Belabieta kiroldegian. Sarrerak Galtzaundiren egoitzan (Tolosa, Nafarroa etorbidea, 6) daude salgai, 5 eurotan.

MENDIA ▶

400 lagun bildu dira Erniopeko ibilaldian eta Berastegikoan

Eguraldia lagun giro polita izan da bi ibilaldietan eta gustura azaldu dira antolatzaileak; txikienak ere irten ziren mendira

IÑIGO TERRADILLOS

Urteko sasoi honetan, asteburuetan batez ere, eskualdeko gailurrak bisitatu ohi dituzte mendizale ugari eguraldi onak lagun dirik. Herenegun aukerarik ez zen falta horretarako; izan ere, bi ibilaldi zeuden antolatuak mendietan barna: Berastegiko Ibilaldi Neurtua eta Erniopeko Mendi Ibilaldia.

Basurde elkarrekin antolatuta, Berastegiko basoetatik barna 14. Ibilaldi Neurtua egin zuten igandean. 200 parte-hartzaile izan ziren dena 07:00etan 30 kilometroko bidea burutzeko Berastegiko plazatik irten zirenak; Erroizpe (Larte), Boketea, Ulizar, Urto, Plazaola, Ipuliño, Gorosmendi eta San Lorenzo igaro zituzten mendizaleek, berriz ere Berastegira bueltatu aurretik. Ibilaldia amaitu ondoren zozketa egin zuten parte-hartzaileen artean. 99 sari baitzituzten banatzeko. Antolatzaileak gustura azaldu dira lortutako emaitzekin, espero baino jende gehiago animatu zelako eta giro ederra nagusitu zelako; halaber, lagundu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiete. Ez behar txiki bat ere izan zen ibilaldian zehar, mendizale tolosar batek belaunean min hartu baitzuen eta Gurutze Gorrikoek hartatu behar izan zuten; «gainerakoan, oso ongi irten zen proba».

Bestalde, Erniozaleak Kultur Elkarrekin antolatuta, Erniopeko V. Mendi Ibilaldia ere izan zen herenegun. Honetan ere, 200 mendizale elkartu ziren. 06:00etan eman zioten hasiera



Erniopeko Ibilaldiko une bat, Hernialdeko kontrollean. HITZA

probari Errezilen, eta Ernio mendia inguratuz, Aia, Asteasu, Larraul, Alkiza, Hernialde, Albiztur eta Bidegoian zeharkatu zituzten berriro Errezilera bueltatzeko, 48,6 kilometro dena. Azeiitik joandako mendizaleak ziren nagusi ibilaldian, baina eskualdeko hainbat herrietatik ere animatu ziren, baita Araba eta Bizkaia aldetik ere. Hauetako askok izan zuten sariarekin etxera bueltatzeko zortea, guztien artean proba amaitzean hainbat sari zozkatu baitzituzten. «Eguraldiak asko lagundu zuen eta giroa oso ona izan zen», azpimarratu dute antolatzaileak; «ibilaldia gogorregia dela iritziz dute askok, eta horregatik atzera egiten dute; hori dela eta luzearekin batera beste txikiago bat antolatzenko asmoa dugu aurrera begira», gehitu dute. Hurrengoa, hemendik bi urtera egingo da, Alkizan.

Gaztetxoak ere mendira

Nagusientzat ezezik, gaztetxoentzat ere antolatu zuten Berastegin ibilaldia. Izan ere, Guraso elkarrekin urtero antolatzen du nagusienaren egun berean ibilaldi laburrago bat. 43 gaztek hartu zuten parte euren gurasoekin 3 ordu inguruan mendi martxan. 09:30ak inguruan abiatu ziren Berastegiko plazatik, eta denborak hartzeko orriak eskuetan Gorosmenditik eta San Lorentzotik igaroko ziren. Handik Berastegirako bidetara ekin zioten. Ibilaldia amaitu, parte-hartzaile guztiek jaso zuten sari txoa, bakoitzaren izenarekin eginiko diploma, hain zuzen.

«Jendea oso gustura ibili da, eta giro polita nagusitu zen; aipatzekoa da ere ia baino 10 lagun gehiago izan direla aurtentzen», azpimarratu dute Guraso Elkartekoak.

ZIZURKIL ▶

Venezuelako prozesu iraultzailea gaur hizpide

'Maiatza Gorria' jardunaldien baitan izango da hitzaldia, 19:00etan Gaztetxean

ERREDAKZIOA

Herriar talde batek *Maiatza Gorria* jardunaldiak antolatu ditu gaur hasi eta hilaren 31 arte. Gaurkoan, Ibon Artolak Zizurkilgo Gaztetxean Venezuelako prozesu iraultzailearen inguruan hitz egingo du; azken urteetan bertan gertatutako aldaketei buruzko dokumentala izango da. Etzi, Joxe Iriarte *Bikila-k Ezkerraren gaur egungo egoerari buruzko erreflexio* batzuk saioa emango du Tolosako Sanblasipiko gazte lokalean (Igaradoren alboan). Bi hitzaldiak 19:00etan izango dira.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroizko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzioz klinikak 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675885
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurramendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88



Amezketak. Etxea atxikia salgai. Eraiki berria. Informa zaitez! Etxesagasti. 943 69 68 56.
Andoain. Egongela, sukaldea, 3 logela eta bainugela. Bizitzera sartzeko moduan. Berogailuarekin. Dena kanpoaldera. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Andoain. Etxebizitza altua, igogailuarekin salgai. Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela.

Erabat berriuta. Trastelekuarekin. Zonalde oso onean. 44.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Anoeta. Eraiki berria. 70 m². 2 logela. Egoera ezin hobean. Dena kanpoaldera. 24 m²-ko trastelekuarekin. 46.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Ibarrak. Aukera paregabea! Etxebizitza zoragarria salgai. Egongela, sukaldea, 3 logela eta

komuna. Egoera ezin hobean. 41.700.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Legorreta, Berrobi, Baliarrain, Itsasondo eta Albiztur. Egoera oneko baserriak, lursailarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Tolosa. Egongela, sukaldea, 3 logela eta bainugela. Egoera onean. Oso eguzkitsua. 44.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

KULTURA ▶

Gaztetandik bertso-grina erakutsiz

Eskolarteko bertso-paper sariketa eta bat-batekorako sailkapen saioa egin dute

JAIONE ASTIBIA

Atzo eguerdiartean, Leitzako zinema aretoan, herrian bertako Erleta eskolako eta Aresoko ikasleek ez ezik Goizuetako eta Beteluko ikasleek ere Nafarroako Eskolarteko Bat-bateko Bertso Lehiaketarako sailkapen saioa egin zuten; bide batez, herrialdeko bertako Eskolarteko Bertso-paper Lehiaketako sariak ere banatu zituzten, aitatutako herrietakoak diren bertsolari saridunentzat.

Lehen Hezkuntzako 3. mailatik hasi eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila arteko lau herri horietako ikasleak bildu ziren atzo zinema aretoan, eta guztiak parte hartu ez bazuten ere, oholtza gainera igo ziren gelakideak animatze-

ko beldurrik ez zuten izan, eta bertotsan aritu behar izan zutenek igarri zuten hori.

Izan ere, aurtengo edizioarekin 20. a izanen duen Nafarroako Bat-bateko Bertso Lehiaketarako hautapen proban, eta zehazki 14 urte arterainokoe-tan, 25 bat umek parte hartu zuten. Guztiak batera igo ziren eszenategira; Arozenak, euren bertso irakaslea eta atzokoan aurkezle lanak egin zituenak, «zortziko ttikian bertsoa osatzeko lau oinak idatzita» zituen papertxo bana banatu zien.

Bertsolariek, bertsoa osatu zuten ahala kantatu zituzten bertsoak: batzuk azkar egiten zuten lana, lauzpabost kantatu zituenik izan baitzen; besteak, pare bana; eta buruan bertsoa osatuta izan arren, jendaurre-



Nafarroako Bertso-paper Lehiaketa. Hauek dira eskualdean saridunak: Barandiaran, Intxausti, Sagastibeltza, Saralegi, Eraso, Sotil, Kalonge; Zabaleta, Arozena, Zozaia eta Sorra. Intxausti kantari. J. A.



an kantatzeak erreparoa eman zienik ere bai. Leitzak eta Ibarrrak osatutako epaimahaiak adi jarraitu zuen saioa. Sailkapenaren berri hurrengo asteetan jakinen omen da.

Bitartean jada bertso-papere- sailean saridun suertatutakoei irabazitako garaikurrak eman zizkieten atzoko jaialdian. Noski, bakoitzak saritutako bere bertsoak kantatu zituzten lagunon aurrean. Hala, Martxel Intxaustik leitzarrak irabazi du Nafarroa osoko 3. eta 4. mailetakoa, besteak beste, Ane Miren Barandiaranek (Aresokoa) eta Mikel Sagastibeltzak (Leitzakoa) aipamena



Bat-batean. Lau oinak emanda, bertso politik egin zituzten. J. ASTIBIA

izanik; 5. eta 6. mailetakoa, Julen Arozenak irabazi badu ere, iapamenak jaso dituzte Xabi Eraso aresoarrak eta Ainara

Saralegi eta Martxel Kalonge leitzarrek. Jon Zozaiak irabazi du Bigarren Hezkuntzakoei dagokien saria.

LEABURU-LEITZA ▶ HERRI KIROLAK

Arrospide finalerdietarako sailkatuta, Olasagastirekin jokatu beharko du

Rekondok galdu egin du Atutxarekin eta azken saioaren zain dago

ERREDAKZIOA

Igandean Angel Arrospidek Urrezko Aizkolaria Txapelketan Urrezko mailako finalerdia jokatzeko txartela eskuratu zuen, Larretxearen aurka jokatuakoa ligaxkakoa bere azken saioan.

Eguneko ekinaldia bi aizkolariek berdin bukatu bazuten ere, 16 minutu eta 42 segundo behar izan zituzten biek hala biek ere, leaburuarrak aurretik zuten abantaila erabakiorra izan zen sailkapenerako eta hala, gainera, ordurako sailkatuta zegoen Mikel Mindegiaren

aurretik taldeko buru ere bada. Honek, finalerdietan beste taldean bigarren gelditu den Olasagastirekin jokatzeko ahalbidetu dio; izan ere, atzo ebatzi zen Karrantzan jokatuakoa jaialdian talde horretako burua Nazabal dela, Txapartegiri irabazi eta hori kanporatu on-

doren. Etxarriarrak bere alde-tik, Mindegiarekin jokatu beharko du beste finalerdia.

Jaialdi berean, baina 23 urtez azpikoetan, Rekondok ez zuen Atutxa II.ari irabazterik lortu. Banakako lanetan leitzarra aurretik joan bazen ere, lan luzean bizkaitarra gailendu egin zitzaion eta 7 segundogatik garaipena eskuratu zuen hark. 12 minutu eta 25 segundotan bukatu zituen lanak Atutxak; 12:32tan, Rekondok. Sail honetan, oraindik, Atutxaren eta X. Mindegiaren arteko lehia jokatuzkoa dago eta sailkapena erabakitzeakoa, beraz: Rekon-

dok eta Atutxak saio bana irabazi dute. Orain Mindegiak zer egiten duen ikusteko dago.

Bestalde, igandean berean jokatu zen Berria mailako Urrezko Harri-jasotzaileen Txapelketa eta Urrutia leitzarrak han zuen lehen saioa. Agirre lagun zuela, 2 jasoaldigatik baina ozta-ozta, ez zuten 3 puntuak eskuartzerik izan. 6.800 kilo jaso zituzten Telleria II.a Eizmendi bikoak, 7.000 kilo. Hemen ere, ez dago deus ere erabakita, oraindik hirugarren saioa egitea falta baita, Urrutia-Agirre eta Lertxundi-Astorkuaren artekoa.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK Telf.: 943 65 56 95
19:00ak arte hartzen dira tolosaldean@tolosaldecohitz.a

hilberria ▶

Angel Aramendi Gomez
Maiatzaren 13an hil zen, 67 urte zituela



Bizitza ondo aprobetxatuta joan zara egun gutxitan.

Gure artean izango zaitugu beti.

Zure ilobak: Xabier, Jon, Mikel, Garbiñe, Aritz, Maialen, Nekane, Gorka, Uxue eta Oier.

URRETXU, 2006ko maiatzaren 16a



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Irura. Kultur Astea. 17:30ean, Jubilatuen jokoak: bote eta toka plazan, eta mahai-jokoak Zaharren Biltokian; 18:00etan, ipuin kontaketa liburutegiko haur txokoan, 3 urteik 11 urte bitarteko haurrentzat.

ERAKUSKETAK

Gaztelu. Edorta Muruaren antzinako euskal jantziei buruzko erakusketa. Hilaren bukaera arte ikusgai, Ostatuan.
Tolosa. Iñaki Olazabalen eskulturak. Hilaren 27ra arte, Aranburu Jauregian.
Tolosa. Mari Carmen Ortegaren pintura lanak, Lanbroa tabernan.
Tolosa. Jesus Lopez Zulueta koadroak. Hilaren amaiera arte, Saikin tabernan.

HITZALDIAK

Leaburu. Zaintzen duen pertsonaren zaintza. Bihar, 18:00etan, Kultur-osasun gunean.
Tolosa. *Arauk eta mugak jartzearen garrantzia.* Hilario Garrudo psikologoarekin. DBHko 1., 2. eta 3. mailako ikasleek gurasoentzat. 18:30ean, Orixe institutuan.
Villabona. *Digestio zorionsuak edo digestio pisuak.* 17:00etan, Biltoki jubilatuei elkartean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Ugarte, M. T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.

IRRATIA

Txolarre irrátia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepaso, elkarrizketak, albisteak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-19:00. *Adi Guri* irrátisaioa, Anoeta Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleek prestatzen duten saioa.
21:00-22:00. *Zaharrak berri*, Irulegi irrátiak eskainitako saioa, Arroza Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.
22:00-23:00. *Street noise* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Irura, erleen gustuko leku

IRURA ▶ Lau erle talderen bisita jaso dute herrian; Luis Mari Intza erlezain tolosarra aritu da horiek biltzen

ERREDAKZIOA



Luis Mari Intza erlezain tolosarra, Iruran, erleekin lanean. HITZA

Irura gustuko toki da, antza, erleentzat. Joan den astean, behintzat, beren bizileku izateko hautatu zuten herria. Eta irurarrak harrিতa eta beldurtuta utzi zituzten. «Lau erle taldeen bisita izan dugu. Herriko etxe desberdinetan beren kabia sortzen saiatu dira. Batzuetan teilatupeko inguruan, besteetan etxeetako pertsiara kaxan eta azkenekoa etxaurreko zuhaixka batean. Kasu hauetan alarma handia sortu dute etxe horietako bizilagunen artean», azaldu dio HITZARI Joxi Lasa irurarrak.
Azkenik, SOS Deiak zerbitzura deitu eta Tolosako Luis Mari Intza erlezaina joan zen «erregina eta bere jarraitzaileak jasotzera. Behin erregina kaxa barruan sartuta, beste guztiak atzetik sartzen dira.
Lan pixka bat izan du, beraz, egun hauetan». Lasak berak jakinarazi duenez, Intzaren esanetan orain da garaia erlesemeak kabitik ateratzeko eta leku berria bilatzera abiatzeko. «Badirudi Irura gustuko lekua topatu dutela».



Behin erregina kaxa barruan sartuta, beste erle guztiak atzetik sartzen dira berehala. HITZA

AGURRAK ▶



ZORIONAK
Irune Ansa eta Felipe Aierbe (Villabona). Gaur 25 urte ezkondu zinetela. Gure zorionik beroenak. Guraso, senide, iloba, Garikoitz eta Maitanerekin egun ona pasa.



URTE ASKOAN
Ander Uranga. Urte askotako. Etxeokoa partetik.



URTE ASKOAN
Zorionak Maialen Belauzaran tolosarrari. Muxu handi bat etxeokoa partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
agurren tartea